



ABERRI EGUNA 2021 (Comunicado)

HERRITAR BATASUNA :: 01/04/2021

Independentzia Sozialismoaz!! La Independencia vendrá de la mano del Socialismo!!!

ABERRI EGUNA 2021

LA INDEPENDENCIA

VENDRÁ DE LA MANO DEL SOCIALISMO

<http://herritarbatasuna.eus/es/comunicados/925-aberri-eguna-2022>

En el Aberri Eguna de este año, está más claro que nunca, que Euskal Herria es una nación que se encuentra dividida y militarmente ocupada. Los dos Estados burgueses que oprimen al Pueblo Trabajador Vasco, esto es, Francia y España, nos han fraccionado en tres trozos a las ciudadanas vascas. Y ello, gracias a la ayuda de sus lacayos colaboracionistas: a la de la Democracia Cristiana de la burguesía vasco-española del PNV, y a la de la Socialdemocracia de la pequeña burguesía de EHBildu. Bajo la excusa de la pandemia, han cortado militarmente los lazos entre los territorios vascos, dificultando y obstaculizando el funcionamiento de aquellas organizaciones revolucionarias y abertzales, y, en general, perjudicado gravemente las relaciones entre las ciudadanas vascas.

La “Comunidad Autónoma Vasca”, la “Comunidad Foral de Navarra” y la “Comunidad de Aglomeración del País Vasco” son los artilugios que los ocupantes han ideado para denominar las tres particiones de una Euskal Herria que ellos conquistaron, colonizaron, sometieron y ocuparon mediante la violencia de sus armas. Nosotras, por el contrario, haciendo nuestro el viejo, y al mismo tiempo nuevo paradigma de la Nación Vasca. denominamos NAFARROA a nuestra nación política, es decir, el Estado que durante siglos permaneció independiente, y que en un futuro volverá de nuevo a ser plenamente soberano, y EUSKAL HERRIA a nuestra nación cultural y lingüística. Es decir, para nosotras no existe contradicción ni oposición alguna entre ambas denominaciones, sino que se complementan mutuamente.

Y otro tanto ocurre en relación con la Independencia y el Socialismo. Si la Independencia es la libertad para la Nación Vasca, el Socialismo constituye el primer paso hacia la libertad del Pueblo Trabajador Vasco. Ambas son inseparables en nuestro proceso revolucionario de liberación nacional y social. De ahí el lema que hemos elegido para este año:
INDEPENDENTZIA, SOZIALISMOAZ!

Construyendo y fortaleciendo la independencia de clase del proletariado vasco es como conseguiremos romper la tiranía y dictadura de la burguesía. Dada la grave situación por la que atraviesa la clase trabajadora vasca, es la única fórmula de que disponemos para que sobreviva el anhelo de alcanzar el Socialismo. Este es el panorama ante el que nos encontramos: la explotación diaria en las fábricas, el cierre de numerosas empresas, la

precariedad, los sueldos de miseria, el paro, los EREs, la policía al servicio de la burguesía apaleando a las trabajadoras en lucha por sus derechos, mientras protegen a los esquirols, recortes en salud y educación, la imposición de facto de un Estado de Excepción bajo la excusa de la pandemia, los accidentes laborales... La Independencia que deseamos las trabajadoras vascas es para construir el Socialismo en Euskal Herria. No queremos la Independencia para aislarnos del resto de los pueblos trabajadores del mundo, sino para unirnos a ellos siendo un país libre y soberano.

Toda abertzale sincera y de buen corazón debe mirar de frente a la realidad: todas las facciones y corrientes de la burguesía vasca han renunciado a la lucha por la Independencia de nuestra nación, y se han integrado plenamente en el sistema político de los dos Estados conquistadores, ocupantes e imperialistas, dando por bueno de facto el autonomismo. Así, y obviando por un momento las facciones españolistas y chovinistas francesas de la burguesía de Euskal Herria, por su identificación total con nuestro enemigo, analicemos las dos facciones de la burguesía de aquí que se autodenominan “abertzale”: la burguesía vasco-española y basque-francaise que se articula dentro del PNV, de un lado, y, de otro, la pequeña burguesía y aristocracia obrera cuya herramienta política es la coalición EHBildu.

El caso del PNV no deja lugar a dudas para cualquier abertzale que realmente aprecie la verdad. El PNV hace mucho que se integró en el sistema político autonómico español, si es que alguna vez estuvo fuera de éste. En el sistema político francés todavía no se ha integrado, pero no porque no lo desee, sino porque ahí no tiene presencia alguna. La Comunidad de Aglomeración del País Vasco (“Euskal Hirigune Elkargoa”) ni siquiera alcanza a ser una reducida, inoperante y triste autonomía, y el etnocidio de Francia, mientras tanto, continua adelante. El PNV es el más eficiente y fiel colaborador que el Reino de España tiene en Hego Euskal Herria, y de manera destacada en los tres territorios del Occidente de Nabarra. Jamás ha sido independentista, y si alguna vez llegara a serlo, será a costa de mantener su poder burgués y arremeter contra la clase trabajadora vasca.

En lo que a EHBildu se refiere, su integración en el sistema monárquico español se ha producido mucho más tarde, y tras la liquidación de lo que venía a llamarse Movimiento Vasco de Liberación Nacional (MVLN). Así, en la actualidad sigue utilizando una “retórica abertzale”, mediante la cual engaña y mantiene bajo control a los sectores patrióticos del Pueblo Trabajador Vasco, y que otrora formaron parte de la Izquierda Abertzale. Nos basta, sin embargo, lo que EHBildu ha dicho y hecho durante estos últimos meses (Apoyar la aprobación de los Presupuestos Generales de España, amparar y apoyar a los zipaios, lo acontecido en el homenaje a los militantes asesinados en la Bahía de Pasaia, etc...) para comprobar que se ha convertido en un PNV de izquierdas, o en una Eusko Alkartasuna resucitada, si se prefiere.

Ante este panorama, ¿Qué se puede hacer? Venimos de la traición, derrota, arrepentimiento y liquidación de lo que fue el MVLN. 60 años de lucha tirados al vertedero, con el profundo trauma que ello ha conllevado para muchos sectores del Pueblo Trabajador Vasco. Sanar las heridas, así como recuperar la esperanza y las ganas para la lucha será un proceso muy largo. Para ese cometido, precisamente, surgió HERRITAR BATASUNA: mantener vivo todo lo bueno del periodo anterior y preparar el siguiente. Para seguir en la lucha.

Llegadas a este punto es como mejor se entiende el lema que hemos escogido para el Aberri Eguna de este año. Llevamos años diciendo que la lucha de clases es el motor de la lucha de liberación nacional. En esta Europa capitalista e imperialista del siglo XXI, las burguesías de las naciones oprimidas son incapaces de lograr la independencia, ni tan siquiera si verdaderamente así lo quisieran. Pero tampoco lo desean, porque recuperar, o lograr la independencia de una nación oprimida exige unos determinados enfrentamientos sociales y confrontamientos políticos muy duros. En ese camino, la lucha de clases se agudiza, convirtiéndose en una rebelión contra todo el sistema capitalista. El caso reciente de Catalunya es, para bien, o para mal, el ejemplo paradigmático de lo que afirmamos. E igualmente válido para Euskal Herria. En el momento en que se abandona la estrategia de la Revolución Socialista, asimismo se abandona la lucha por la Independencia. Siempre.

Estas últimas décadas hemos podido ver, tanto en Catalunya como en Euskal Herria, que sus burguesías, o son totalmente autonomistas y colaboracionistas, como es el caso del PNV; o ante el nivel de lucha que exige llevar hasta el final un proceso independentista se acobardan y reniegan, como han hecho JxC y ERC. No son capaces de culminar dicho proceso porque éste lleva implícito una Revolución Socialista de la Clase Trabajadora, algo a lo que le tienen auténtico pavor. Prefieren, en definitiva, una nación oprimida antes que socialista. Burgueses...

En su lugar, las pequeñas burguesías de las naciones oprimidas manipulan a la clase trabajadora, con llamamientos a luchar unidas por un Estado independiente “digno”, “progresista”, “de bienestar”, siempre que sean ellos los que dirijan y controlen ese proceso. Pero nunca y de ninguna manera, a luchar por la Revolución Socialista, y aún menos a dar pasos en el camino hacia la consecución de una sociedad libre, sin clases ni Estado ni Patriarcado. Algo lógico, por otro lado, dado que cada clase social actúa, consciente o inconscientemente, en función de sus propios intereses. Y la pequeña burguesía siempre se sitúa entre el Proletariado y la Burguesía, esto es, en el hipotético espacio intermedio reformista socialdemócrata disfrazándose de mil maneras para engañar a la clase obrera, y tratando así de mantener ocultas sus verdaderas intenciones. Es ahí donde sin duda se ubican los politiquillos pequeño burgueses de EHBildu y la CUP.

Por consiguiente, la auténtica Independencia Nacional únicamente puede lograrse mediante la Revolución Socialista. Cuba y Vietnam fueron, en el siglo XX, los ejemplos más claros y contundentes de esta ecuación político-estratégica. Por esa razón, en este recién comenzado siglo XXI, nosotras reivindicamos ¡LA INDEPENDENCIA VENDRÁ DE LA MANO DEL SOCIALISMO! También la Reeskaldunización y Reunificación Nacional. Sólo el Proletariado tiene la capacidad de llevar hasta el final los cometidos nacionales de la Revolución Vasca, dentro de la estrategia revolucionaria e internacionalista a favor del Socialismo. Y es ahí donde situamos igualmente la consecución de la AMNISTIA TOTAL, esto es, en la victoria del SOCIALISMO.

Hacemos un llamamiento a organizarnos y a luchar a favor de este programa. Si quieres acompañarnos, acércate el 4 de abril, a las 09.30, a la Plaza de Lezama, a participar en una marcha montañera y, a las 13:00, en el mismo lugar, a celebrar con nosotras el Aberri Eguna.

INDEPENDENTZIA, SOZIALISMOAZ!

Herritar Batasuna

ABERRI EGUNA 2021

INDEPENDENTZIA, SOZIALISMOAZ!

<http://herritarbatasuna.eus/eu/adierazpenak/923-aberri-eguna-2021>

Aurtengo Aberri Egunean inoiz baino argiago dago Euskal Herria militarki okupatua eta zatituta dagoen nazio bat dela. Euskal herritarrek hiru puskatan hautsi gaituzte Euskal Herri Langilea zapaltzen duten bi estatu burges inperialistek, Frantziak eta Espainiak, beren morroi kolaborazionisten laguntzaz: burgesia vasco-espainolaren PNV kristau demokratak eta euskal burgesia txikiaren EHBildu sozialdemokratak. Pandemiaren aitzakiaz euskal herrialdeen arteko loturak moztu dituzte militarki, antolakunde nazional abertzale eta iraultzaileen funtzionamendua oztopatuz eta zailduz, eta oro har euskal herritarren arteko harremanak larriki kaltetuz.

“Euskal Autonomia Erkidegoa”, “Nafarroako Foru Komunitatea” eta “Euskal Hirigune Elkargoa” dira okupatzaileek asmatu dituzten izenak haiek armez, suz eta garrez konkistatu, okupatu, kolonizatu eta menperatutako Euskal Herriaren hiru zatiak izendatzeko. Guk, Euskal Nazioaren paradigma zahar-berria gure eginik, NAFARROA esaten diogu geure nazio politikoari, mende luzez independente izan zen eta noizbait berriz ere burujabe izanen den estatuari, eta EUSKAL HERRIA geure nazio kultural eta linguistikoari. Guretzat ez dago kontraesanik, ezta oposiziorik ere, Euskal Nazioaren bi izen horien artean. Elkarren osagarri dira.

Gauza bera gertatzen da Independentzia eta Sozialismoarekin. Euskal Nazioaren askatasuna Independentzia da. Euskal Herri Langilearen askatasunaren aldeko lehen urratsa, Sozialismoa. Biak lotuta daude gure askapen nazional eta sozialaren prozesu iraultzailean. Horregatik aukeratu dugu aurtengo leloa: INDEPENDENTZIA, SOZIALISMOAZ!

Euskal Langileriaren klase independentzia eraikiz eta indartuz lortuko dugu burgesiaren diktadura eta tirania haustea. Euskal langileon egoera latza ikusita, Sozialismoa bizirik irauteko formula bakarra dugu. Hona hemen panorama: eguneroko esplotazioa fabriketan, lantegi askoren itxiera, prekaritatea, miseriazko soldatak, langabezia, EREak, polizia burgesen errepresioa borrokan diren langileen aurka, eskirolei ematen zaien babesak, murrizketak osasungintzan eta irakaskuntzan, pandemiaren aitzakiaz de facto ezarri den salbuespen egoera, lan istripuak... Euskal langileok nahi dugun Independentzia, Euskal Herrian Sozialismoa eraikitzeke da. Ez dugu inolaz ere Independentzia munduko beste langileegandik isolatzeko, baizik eta libre eta burujabe elkartzeko.

Bihotz oneko abertzale zintzo orok errealitatea buruz buru ikusi behar du: Euskal Herriko burgesiaren frakzio eta joera guzti-guztiek uko egin diote Aberriaren Independentziaren aldeko borroka egiteari, eta bi estatu konkistatzaile, okupatzaile, kolonizatzaile eta inperialisten sistema politikoan bete-betean integratu dira, autonomismoa de facto onartuz. Euskal Herrian diren burgesiaren frakzio espainolistak eta xobinista frantximantak alde

batera utzita, haiek etsaiekin erabat identifikatzen direlako, azter ditzagun “abertzale” autoizendatzen diren burgesiaren bi frakzio hemengoak: PNVren baitan artikulatzen den burgesia vasco-espainola eta basque-frantsesa, eta euskal burgesia txikiaren zein langile aristokraziaren tresna politikoa den EHBildu koalizioa.

PNVren kasua argi eta garbi dago egia benetan maite duen edozein abertzalerendako. PNV aspaldian integratu da erabat sistema politiko autonomiko espainolean, noizbait kanpoan izan balitz. Sistema autonomiko frantsesean ez da oraindik integratu, existitzen ez delako, ez gogo faltarengatik. “Euskal Hirigune Elkargoa” ez da iristen ezta autonomia murrizt, elbarri eta tristea izatera ere, eta bitartean Frantziaren etnozidua aurrera doa. PNV da, bereziki Hego Euskal Herrian, eta nagusiki Nafarroako Mendebaldeko hiru herrialdeetan, Espainiako Erresumak duen kolaborazionistarik eraginkorren eta fidelena. Ez da inoiz independentista izan, eta izatekotan noizbait, bere boteretxo burgesa atxikitzeke izanen da, eta euskal langileen aurka gogor jotzeko.

EHBilduren kasuan, Espainiako Monarkiaren sistema politikoan integratu da askozaz ere geroago, Euskal Nazio Askapen Mugimenduaren likidazioaren ondorioz. Beraz, “erretolika abertzalea” erabiltzen du oraindik Euskal Herri Langilearen sektore patriotikoak engainatu eta kontrolpean atxikitzeke, garai batean Ezker Abertzalearen baitan aritu zirenak. Bainan aski da ikustea azken hilabeteotan EHBilduk egin eta esan duena (Espainiako aurrekontuak onartu, zipaioak babestu eta txalotu, Pasaia Badiako omenaldian gertatutakoa, eta beste hamaika kontu...) konturatzeko koalizioa ezkerreko PNV bat bilakatu dela. EUSKO ALKARTASUNA berpizturik.

Honen aurrean, zer egin? Euskal Nazio Askapen Mugimenduaren traizio, derrota, damutze eta likidaziotik gatoz. 60 urteko borroka pikutara bidalia. Honek sakonki traumatu ditu Euskal Herri Langilearen sektore asko. Zauriak sendatzea eta itxaropena zein borrokarako gogoa berreskuratzea prozesu luzea izanen da. Horregatik eta horretarako sortu zen HERRITAR BATASUNA. Aurreko zikloaren alde on guztiak bizirik mantzentzeko eta hurrengo prestatzeko. Borrokan segitzeko.

Honaino iritsita, hobeki ulertzen da aurtengo Aberri Egunaren leloa. Urteak daramatzagu esaten klase borroka nazio askapenaren motorra dela. XXI. mendeko Europa kapitalista eta inperialista honetan nazio zapalduetako burgesiek ezinezko dute independentzia lortzea, nahi izanen balute ere. Eta ez dute nahi, zeren eta nazio zapaldu baten independentzia eskuratzeak enfrentamendu sozial eta konfrontazio politiko gogorrak eskatzen baititu. Bide horretan, klase borroka areagotu egiten da, sistema kapitalista osoaren aurkako matxinada bilakatuz. Catalunya da, onerako eta txarrerako, esaten dugunaren adibide paradigmaticoa. Eta Euskal Herria ere bai. Iraultza Sozialistaren estrategia abandonatzen denean, Independentzia ere baztertu egiten da. Beti.

Catalunyan eta Euskal Herrian azken hamarkadetan ikusten ari garenez, nazio zapalduetako burgesiak, edo guztiz autonomistak eta kolaborazionistak dira, PNV bezala, edo Independentzia lortzeak eskatzen duen borroka mailaren aurrean izutu egiten dira eta atzera jotzen dute, JxC , ERC bezala. Ez dira gai prozesu independentista bururaino eramateko. Langileon Iraultza Sozialistaren beldur dira, hain zuzen ere. Nahiago dute Aberria zapaldua, Sozialista izan dadin baino. Burgesak...

Nazio zapalduetako burgesia txikiek, aldiz, Herri Langileak manipulatu nahi dituzte, balizko estatu independente “duin”, “progresista”, “ongizatezko” baten alde denok batera elkarrekin borroka gaitezen, haiek izanik beti ere prozesuaren gidari eta zuzendari. Bainan ez, inolaz ere, Iraultza Sozialistaren alde borrokatzeko, eta are gutxiago klase, estatu eta patriarkaturik gabeko sozietate libre baten bidean urrats iraultzaileak egiteko. Erabat logikoa, bestalde, zeren klase sozial bakoitzak bere interesen arabera jokatzeko joera baitu, kontziente edo inkontzienteki. Eta burgesia txikia Langileria eta Burgesiaren artean kokatzen da beti, balizko erdibide erreformista sozialdemokratan. Nahiz eta langileak engainatzeko mila mozorroz jantzi eta beren benetako asmoak ezkutatu. Horiek ditugu, argi eta garbi, EHBildu eta CUP. Politikillo burges txikiak.

Beraz, benetako Independentzia Nazionala, Iraultza Sozialista baten bidez bakarrik lortu ahal da. Kuba eta Vietnam izan ziren ekuazio politiko estrategiko honen adibiderik argien eta borobilenak XX. mendean. Horregatik aldarrikatzen dugu guk XXI. mendeko hasiera honetan: INDEPENDENTZIA, SOZIALISMOAZ! Berreuskalduntzea eta Birbatasun Nazionala ere, bide beretik lortuko ditugu. Proletalgoak bakarrik eraman ahal ditu bururaino Euskal Iraultzaren eginkizun nazionalak, Sozialismoaren aldeko estrategia iraultzaile eta internazionalista baten baitan. Hor kokatzen dugu, jakina AMNISTIA OSOaren lorpena. SOZIALISMOaren garaipenean.

Programa honen alde antolatza eta borrokatza deitzen zaituztegu. Gurekin batera aritu nahi baduzu, etorri apirilaren 4an, goizeko 9,30etan, Lezamako plazara, mendi ibilaldi bat egitera, eta eguerdiko ordubatean , toki berera, Aberri Eguna elkarrekin ospatzera.

INDEPENDENTZIA, SOZIALISMOAZ!

Herritar Batasuna

https://www.lahaine.org/mm_ss_est_esp.php/aberri-eguna-2021-comunicado